

Emaileak

Xabier Aierdi: Soziologian doktorea, EHU/UPVko irakaslea eszedentzian.

David Alvear: Psikologian doktorea, EHU/UPVko irakaslea, psikologia positiboan eta mindfulness arloan espezialista.

Izaskun Andonegi: Erizaina, doluan eta zaintza aringarrietan aditua. Bidegin dolu-elkartearen sortzailea.

Pello Añorga: Idazlea eta ipuin-kontalaria.

Kepa Arrate: Zen maisua.

Joxe Arregi: Teologian doktorea, Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

Joxean Artze: Poeta, Ez Dok Amairu taldearen sortzaileetako.

Joseba Azkarraga: Soziologian doktorea, EHU/UPVko irakaslea, psikologia analitikoan eta Zen meditazioan trebatua.

Mixel Berhokoirigoin: Euskal Herriko Laborantza Ganberako sortzailea eta presidente ohia.

Jose txo Beriain: Soziologian katedraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Ana Berrizbeitia: Teologoa, IDPTko irakaslea.

Rafael Cristobal: Medikuntzan doktorea (psikiatria) eta psikoterapeuta.

Kepa Egiluz: Irakaslea, Zen Budismoan aditua.

Pedro Migel Etxenike: Fisikako katedraduna, Donostia International Physics Center-eko zuzendaria.

Zorione Fundazuri: Irakaslea.

Marije Goikoetxea: Psikologian doktorea eta teologoa.

Virginia Imaz: Oihulari Klown antzerki konpainiaren fundatzailea.

Joseba Intxausti: Historialaria, ohorezko euskaltzaina.

Joan Mari Irigoien: Idazlea.

Xabier Itçaina: Soziologian doktorea eta CNRSko Ikerlaria. Sciences Po Bordeaux.

David Jou: Fisika Katedraduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta poesiagilea.

Arantzazu Loidi: PRH (Personalidad y Relaciones Humanas) metodologian formatzailea.

Gabi Mouesca: Militante politikoa eta gizarte-ekintzailea.

Unai Oñederra: Manu Robles-Arangiz Fundazioko zuzendaria eta ELAko militantea.

Peio Ospital: Kantaria eta kazetaria.

Joseba Ossa: Bakun-eko zuzendaria eta gizarte-eragilea.

Jose Antonio Pagola: Teologoa eta idazlea.

Rafael Redondo: Psikologia klinikoan lizentziatua eta soziologian doktorea. Zen maisua.

Fernando Rodríguez Bornaetxea: Psikologian doktorea eta psikoterapeuta, Baraka Institutuko fundatzailea eta Vipassana meditazioko maisua.

Txemi Santamaria: Psikologian eta teologian lizentziatua, psikoterapeuta eta psikologian doktoregaia.

Jon Sarasua: Komunikazioan doktorea, Mondragon Unibertsitateko irakaslea.

Imanol Zubero: Soziologian doktorea, EHU/UPVko irakaslea.

Felix Zubia: Donostia Ospitaleko Zainketa Berezien saileko medikua eta bertsolaria.

Aiora Zulaika: Haurren munduko kulturgilea, "Pirritx".

Informazio praktikoa

Noiz: 2016ko irailetik 2017ko ekainera, hilean larunbat bat. Hilean behingo 10 saio, beraz.

Non: Arantzazu (Oñati).

Ordutegia: 10:00 – 18:00

Lan-dedikazioa: 65 ordu presentzial. Horrez gain, saiotik saiora ikasleari ordu ez-presentzial batzuk planteatuko zaizkio (irakurketak, bideoak edota zenbait ariketa xume), eta ikaslearen eskuetan egongo da nahi beste sakontzea.

Metodologia: klase teorikoak; testigantza pertsonalak (idazleak, zientzialariak, erlijiosoak, sortzaileak...); mahai-inguruak; alderdi artistiko-performatiboak; irakurketa eta bideo-materialen lanketa.

Hizkuntza: euskara eta gaztelania, euskarari lehentasuna emanda (bietan beharko da gutxieneko gaitasuna).

Prezioa: Matrikula arrunta: 450 euro (bazkariak barne).

5 laguntza-beka izango dira matrikula arrunta ordaintzeko zailtasuna dutenentzat.

Izen-ematea

Epea: 2016ko maiatzaren 1etik, uztailaren 15era (plaza mugatuak).

Matrikula egiteko, bi modu: web orriko formularioa beteta edo e-postaz

- **e-posta:** info@espiritualtasuna21.eus
- **www.espiritualtasuna21.eus**

Telefonoa: 688 896 372 (16:00 - 18:00).



Antolatzaileak


Antolatzailea: AGORA Elkartea

Koordinatzaileak eta arduradunak: Joseba Azkarraga eta Jon Sarasua

Batzorde Pedagogikoa: Joxe Arregi, Joseba Ossa, Jon Sarasua, Joseba Azkarraga

Idazkaritza teknikoa: Pello Sarasua

Laguntzaileak:

 Gune Elkartea

 Arantzazuko Adiskideak

 Gipuzkoako Foru Aldundia

“Espiritualtasuna XXI. mendean” ikastaroaren aurkezpen-ekitaldia

Eguna: maiatzak 16

Lekua: Koldo Mitxelena (Donostia)

Ordua: 19:00

Mahai-inguruan: Joxe Arregi, Virginia Imaz, Fernando Rodríguez Bornaetxea, Jon Sarasua eta Joseba Ossa (moderatzailea)

Ikastaroaren aurkezpena: Joseba Azkarraga Etxagibel

Sarrera doan




Espiritualtasuna XXI

Oinarriak, loturak eta galderak

Diploma
Lehen edizioa, 2016/2017

agora
ELKARTEA



Abiaturua

Euskal Herriak hamarkada gutxitan sekularizazio azkar bezain muturrekoa bizi izan du. Inpaktu kultural handiko aldaketa soziologikoa izan da. **Nola elikatu bizitzaren alderdi existentziala baldintza kultural berriotan?** Beharbada esperientzia bizigarrietarako ateak zabaldu dira, baldintza berriok ezarri duten askatasunagatik eta pluraltasunagatik.

Munduan nahiz Euskal Herrian, hortxe diraute **erlijioari, espiritualtasunari eta auzi existentzialei** loturiko galderak, kezak, ardurak. Pertsona askok jarraitzen dute galdetuz **bizitzaren iturriaz eta zentzuaz**, norantz goazen, edota **zein den bizitza ona**.

Are gehiago, **barnekotasuna lantzeko** joerak mugitzen ari dira, psikologia modernoaren ildoetatik, Ekialdetik datozen haizeei erreparatuz, kristautasunaren bidetik, edota globalizazioak eskura jarri dizkigun bestelakoei helduz. Eta, garai mugituotan, badugu beharra **argi pixka bat egiteko** panorama nahasi samarrean, miatuz gure aurrekoek egindako bilaketen emaitzak, arakatuz proposamen berriak, ulertuz han-hemen hedatzen ari diren formulazioak. Beti ere, **arnas luzeko tradizioetan** aurki daitekeen aberastasunaren aitortzatik, **zientziarekin** beharrezkoa den elkarriketatik, **ikuspegi pluralistatik**, eta gizartearen **plaza laikoa** bermatzeko egitasmotik.



Helburuak

- Espiritualtasunari, erlijio-gertakariari eta alderdi existentzialari buruzko gogoeta, analisi eta elkarriketarako formazio-gune bat osatzea.

- Arlo honetan bila ari direnentzat topaleku eta gogoeta-gune laikoa eskaintzea.

Formazio-eskaintza honekin, euskara ardatz hartuta, eta gaztelerari ere tartea eginez, norberak **bilaketa propioa** egiteko oinarri batzuk landu nahi ditugu, gaurko sentsibiltate kultural eta dilema sozial berrietara irekita. Iruditu zaigu Arantzazu gogoak bildu eta gogoeta eraberritzaileez solasteko gune abegitsua dela, jarraipena emanez hainbat arlotan gure herrian izan duen arnagune funtzioari.

Edukiak

I. Izatearen muinari begira (irailak 17)

Zer da espiritualtasuna deitzen dugun hori? Zer esan dezakegu izatearen muinaren bilaketaz? Nola ulertu eta kokatu ditzakegu “existentziaren galdera”, “espiritualtasuna” eta “erlijioa” terminoen adierak? Zein da erlijio-fenomenoaren funtsezko egitura? Ze abagunetan dago gaur egun espiritualtasunaren gaia mundu globalean? Nola kokatu tradizio espiritualen emaria egungo pluralismoan?

II. Zientzia eta espiritualtasuna (urriak 22)

Zein dira zientziaren eta espiritualtasunaren arteko osagarritasunak eta debateak? Errealitaterako ze akzesio-bide da metodo zientifikoa? Ze akzesio-bide landu izan dira espiritualtasunean? Ze ukipen eta ze muga aipa ditzakegu bien artean? Zientziaren metodologia bidez garatzen diren ze jakintza-ildok ematen dizkigute espiritualtasuna kokatzeko pista interesgarriak? Eta tradizio espiritualek ze pista ematen dizkigute zientziaren ahaleginak orientatzeko?

III. Gizarte aldaketen arrastoan (azaroak 19)

Erljioa ziztuan pasa da monopolio kognitiboko egoeratik espazio sinboliko eta sozialaren ertzera. Inpaktu kultural handiko aldaketa soziologikoa izan da. Zeintzuk dira baldintza soziokultural berriak? Aro globalak eta azken hamarkadetako aldaketek zer nolako inpaktua izan dute espiritualtasunean eta berau bizitzeko moduetan? Zein forma, leku edo funtzio harlitzake etorkizunean galdera existentzialak?

IV. Psikologiaren ekarpenak (abendua 17 / urtarrilak 21)

Azken mendean jakintza psikologiko modernoak garapen handia izan du eta aurrerapauso

handiak eman dira gizakiaren ulermenean. Bere aldetik, espiritualtasunaren ikuspegiak beti egon dira hor, beharbada gizakia gizaki denetik. Sarri lausoak dirudite bien arteko mugak. Eta azken urteotan badirudi bien artean gerturatzea ematen ari dela. Zeintzuk dira bien arteko loturak eta ezberdintasunak? Zein eratan integra daiteke ikuspegi psikologikoa espiritualtasunean eta ikuspegi espirituala psikologian?

V. Tradizio espiritualen uheran (otsailak 18 / martxoak 18 / apirilak 29)

Gizakia ez da izaki isolatua, kultur fluxu batean kokatzen den izaki soziala baizik. Zein dira gure espiritualtasunean konfiguratzeko gaituzten korronteen ekarpenak? Zein dira korronte hauen egungo galderak eta norabideak? Nola formula ditzakegu mendebaldeko eta ekialdeko sentsibiltate espiritualen arteko aldea eta loturak? Ze oinarri planteatu liteke erlijioen arteko elkarriketarako egoera plural batean? Hiru arlo aztertuko ditugu nagusiki: euskal sustrai piriniarrak; kristautasunaren oinarriak eta etorkizuna; eta budismoaren eta tradizio meditatiboaren (mindfulness) oinarriak.

VI. Barrukotasuna nola hezi gaurko gizartean (maiatzak 20)

Egungo gizartean espiritualtasuna eta, zabalago, berau garatzeak behar duen barrukotasuna lantzeko bideez galdetu nahi dugu azken atal honetan. Nola egin liteke barne-irekiduraren lanketa hori familian? Ze gogoeta egin dezakegu hezkuntza arautuan alor honek izan dezakeen tokiaz? Espiritualtasuna nola bizi liteke artean eta kultur sorkuntzan? Zer esan dezakegu espiritualtasunaren eta herrigintzarekiko konpromisoaren uztarketaz?

VII. Itxiera-ekitaldia (ekainak 17)



XABIER AIERDI



DAVID ALVEAR



IZASKUN ANDONEGI




PELLO ANORGA



KEPA ARRATE



JOXE ARREGI



JOXEAN ARTZE



JOSEBA AZKARRAGA



MIXEL BERTHOKOIRIGOIN



JOSETXO BERIAIN



ANA BERRIZBEITIA



RAFAEL CRISTOBAL



KEPA EGILUZ



PEDRO MIGEL ETXENIKE



ZORIONE FUNDAZURI




MARIJE GOIKOETXEA



VIRGINIA IMAZ



JOSEBA INTXAUSTI



JOAN MARI IRIGOIEN



XABIER ITÇAINA



DAVID JOU



ARANTZAZU LOIDI



GABI MOUESCA



UNAI ONEDERRA



PEIO OSPITAL



JOSEBA OSSA



JOSE ANTONIO PAGOLA



RAFAEL REDONDO



FERNANDO RODRÍGUEZ BORNAETXEA



TXEMI SANTAMARIA



JON SARASUA



IMANOL ZUBERO



FELIX ZUBIA



AIORA ZULAICA